



"Zerotik hitzegiten ikasteko beharra dut eta ez dakit nola hasten den hitzegiten" juxtu dei berri baten soinua entzun aurretik. Irrifarra zabaltzen duzu, haizetan gastaturiko maindirea, eta halere unetxo bat ba duzu pentsatzeko noizbait zein koloretakoa izan zen, edo nolakoa zen zure ahoan zimurturiko agur korporatiboa. Orain da gezurretan hasten zaren unea, ez ahaztu maindirea pintzekin lotzen, haizeak ez dezan eraman; edo deskuido z lurrera erori, galdu eta behingoz uzten diozun galdetzeari noiz hasi zinen hainbeste gezurrei irri egiten. Ikusten? jakinaren gainean zaude. Berriz erori zaizu.

Orain egian esan nahi izango duzu, ezertxo ere ez isildu. Zein lanbide aurkituko duzu horrela, esan. Urte asko dela erantzuna prest dauka errealitateak. Zero.

[Nirekiko eta besteen artean gezurren bat eror arazi lortzen dudak bakoitzean, berriz hitzegiten ikasi behar dudala sentitzen dut.]